



# elika

Fundación Vasca para la  
Seguridad Agroalimentaria

Nekazaritzako Elikagaien  
Segurtasunarako  
Euskal Fundazioa

## Trazabilitatea

### **728/2007 Errege Dekretua**

, ekainaren 13koa, abereen mugimenduen erregistro orokorra eta abereak banaka identifikatzeko erregistro orokorra ezarri eta arautzen dituena.

### **479/2004 Errege Dekretua**

, martxoaren 26koa, abeltzaintzako ustiategien erregistro orokorra ezarri eta arautzeari buruzkoa.

### **217/2004 Errege Dekretua**

, otsailaren 6koa, esnearen sektorean parte hartzen duten eragileen, establezimenduen eta edukiontzien identifikazioa eta erregistroa eta, halaber, esnearekin egindako mugimenduen erregistroa arautzen dituena.

### **361/2009 Errege Dekretua**

, martxoaren 20koa, hiltegiara eramaten diren abereekin batera elikakateari buruz aurkeztu beharreko informazioa arautzen duena.

Abeltzaintza-produkzio primarioan, animalia bizien trazabilitatea bermatu egiten da jaiotzen direnetik hiltzen diren arte, honako tresna hauek konbinatuta:

#### Animalien Identifikazio Indibidualeko

erregistro orokorra (RIIA).

#### Abereen Mugimenduen

Erregistro Orokorra (REMO).

#### Abeltzaintza Ustiategien

Erregistro Orokorra (REGA).

Sistema horiek guztiak beste sistema orokor batean sartuta daude:

### **Animalien Trazabilitaterako Sistema Integrala (SITRAN)**

Bestetik,

#### **Animalia Bizien Garraiolarien Sistema (SIRENTRA)**

bat ere badago.

Horrez gain, animaliek ekoitzitako elikagai batzuetarako,

#### **esnea eta esnekiak**

, tresna espezifikoak daude abeltegitik industria eraldatzaile/banatzailera arteko animalien trazabilitatea bermatzeko:

#### **Q letraren datu-basea.**

## Animalien Trazabilitaterako Sistema Integrala - SITRAN

Autonomia-erkidegoetako erregistroak estatu mailako erregistro zentralizatu batekin komunikatzen dituen datu-basea da. Euskal Autonomi Erkidegoan, SITRAN autonomiko bat existitzen da (Eusko Jaurlaritzak kudeatuta), Foru Aldundiek kudeatutako lurralde datu baseek ornitutakoa.

SITRAN hiru moduluk osatzen dute:

#### **RIIA**

#### **REMO**

y

#### **REGA**

Animalien Identifikazio Indibidualeko erregistro orokorra (RIIA)

Animalien Identifikazioa (RIIA) eta Abereen Mugimenduen Erregistroa

### **728/2007 Errege Dekretuaren**

bidez arautzen dira.

Animalien Identifikazioa ezinbesteko elementua bihurtu da animalia-jatorriko elikagaien segurtasunean, horien jatorriaren arrastoari jarraitzea ahalbidetzen baitu, mahaitik abeltegira arte.

Animalia-espeziearen arabera, identifikazio-sistema indibiduala edo lotekakoa izan daiteke:

#### **Indibiduala:**

behiak, ardiak, ahuntzak eta zaldiak.

## **Lotekakoa:**

txerriak eta hegaztiak.

Hauek dira animalien

identifikazio indibidualeko

sistema osatzen duten elementuak:

Identifikazio-bitartekoak: animalari aplikatutakoak

Datu-base informatizatuak

Mugimendu-dokumentuak

Ustiapenaren erregistro-liburua

Animalien Identifikazioko informazioa

**animalia-espeziearen arabera:**

## **Behiak**



### **1980/1998 Errege Dekretua**

, irailaren 18koa, behi-espezieko abereak identifikatzeko eta erregistratzeko sistema ezartzen duena.

**Behiei buruzko informazio gehiago - MAPA**

## **Ardiak / Ahuntzak**



### **685/2013 Errege Dekretua**

, irailaren 16koa, ardi- eta ahuntz-espezieko abereak identifikatzeko eta erregistratzeko sistema ezartzen duena.

**Informazio gehiago - MAPA**

## **Zaldiak**



### **676/2016 Errege Dekretua**

, abenduaren 16koa, zaldi-espezieko abereak identifikatzeko eta erregistratzeko sistema ezartzen duena.

**Zaldiei buruzko informazio gehiago - MAPA**

## **Beste espezie batzuk**

**Beste espezie batzuei buruzko informazioa - MAPA**

**Abereen Mugimenduen Erregistro Orokorra (REMO)**



Abereen Mugimenduen Erregistroa (REMO)

### **728/2007 Errege Dekretuaren**

bidez arautzen da.

REMOk espezie ezberdinen mugimenduei buruzko informazioa jasotzen du: behi, ardi, ahuntz eta zaldien kasuan modu indibidualean, eta gainerako espezieen kasuan loteka.

REMO sistema Mugimenduen Erregistro sistema bat da, beste herrialde batzuetako inportazio-mugimenduak eta beste herrialde batzuetarako esportazio-mugimenduak barne hartzen dituena. Mugimenduarekin zuzenean lotuta dauden oinarritzko datuak, ezaugarriak eta bereizgarriak jasotzen ditu. Datuen eredia gai da abeltzaintza-intereseko edozein espezieetako animalien mugimenduen erregistroan ematen den kasuistika osoa jasotzeko.

**Abeltzaintza Ustiatgien Erregistro Orokorra (REGA)**



Abeltzaintza Ustiatgien Erregistro Orokorra (REGA)

### **479/2004 Errege Dekretuaren**

bidez arautzen da.

REGAk Abereen Osasunari buruzko 8/2003 Legeko 38. artikuluko 1. atalean jasotako derrigortasuna jasotzen du; horren arabera,

abereen ustiategi guztiek erregistratuta egon behar dute

kokatuta dauden autonomia erkidegoan, eta erregistro horien oinarritzko datuak informazio xedea duen erregistro nazional batean jasoko dira.

### **Erregistro nazional informatibo bat da**

; ustiategietako gutxieneko datu batzuk jaso eta lege-betebehar komunitario nahiz nazionalei erantzuna ematen die. Sistema horren helburua da Abeltzaintza Ustiatgien Erregistro Nazional bat osatzea, indarreko legeriarekin bat datorrena, autonomia-erkidegoen arteko datu-fluxua bideratu, informazioa modu homogeenan bildu, ustiategia osatzen duten kokaleku guztiak ezagutzea ahalbidetu, beste sare eta sistema batzuei babes gisa baliagarria izan (RASVE, zaintza epidemiologikoko sareak, etab.),

**trazabilitatea bermatu, animalien osasuna kontrolatzea erraztu eta laguntza-erregimen jakin batzuk kontrolatzea errazten duena**

## **Flikakateari buruzko informazioa (ICA)**



ICA

### **853/2004 Erregelamenduko**

III. ataleko II. eranskinean dago ezarrita, eta Espainian 361/2009 Errege Dekretuak arautzen du. ICAk jaso beharreko gutxieneko datuak

### **361/2009 Errege Dekretu**

aren II. eranskinean daude jasota.

## **Informazio interesagarria**

---

### **TRACES**

- CE

## **Animalia Bizien Garraiolarien Sistema - SIRENTRA**

---

SIRENTRA

### **542/2016 Errege Dekretuaren**

bidez arautzen da.

### **Animalia bizien garraiolarien, garraibideen eta edukitzaileen baimen eta erregistroa**

ren derrigortasuna jasotzen du, arau hauen arabera: dena:8/2003 Legea, Abereen Osasunari buruzkoa; 1/2005 Erregelamendua, garraioan zehar animaliak babesteko; eta 32/2007 Legea, animaliak zaintzeko, ustiatu, garraiatu, saiakuntzak egin eta hiltzeko orduan.

### **SIRENTRari buruz informazio gehiago - MAPA**

## **Datu basea – Q letra**

---

Honako hau da Q letra izeneko datu-basea erregulatzen duen araudia:

Estatuan:

### **217/2004 Errege Dekretua**

, otsailaren 6koa, esnearen sektorean parte hartzen duten eragileen, establezimenduen eta edukiontzien identifikazioa eta erregistroa eta, halaber, esnearekin egindako mugimenduen erregistroa arautzen dituena.

### **1728/2007 Errege Dekretua**

, abenduaren 21koa, esnearen sektoreko eragileek bete beharreko oinarrizko kontrol-arauak ezartzen dituena.

### **752/2011 Errege Dekretua**

, maiatzaren 27koa, ardi- eta ahuntz-esne gordinaren sektoreko eragileek bete behar duten kontrolerako oinarrizko araudia ezartzen duena.

Euskal Autonomia Erkidegoan:

### **60/2012 Dekretua, apirilaren 24koa**

, Euskal Autonomia Erkidegoan gizakiek jateko ez diren animalia-jatorriko azpiproduktuen arloko eginkizunak antolatzeari eta banatzeari buruzkoa.

### **31/2007 Dekretua, otsailaren 20koa**

, behi-esne gordinaren trazabilitateari eta elikagaien segurtasunari buruzkoa.

Q letra izeneko datu-baseak bermatu egiten du esnearen trazabilitatea, abeltegitik hasi eta esnea eraldatzen eta merkaturatzen duten industrietara artekoa. Esnearen sektorean esku hartzen duten eragile guztien erregistroa da: administrazioa, operadoreak, ekoizleak eta laborategiak.

Honako hauek dira esnearen sektorean esku hartzen duten eragileek Euskal Autonomia Erkidegoan bete beharreko betekizunak:

### **Ekoizleen betebeharrak**

---

Esne-salmenten eguneroko erregistroa gordetzea.

Esnea jasotzen duten bakoitzean, operadoreak eman behar dizkien entrega-ziurtagiriak gordetzea.

Analisi-laborategiak igorritako analisiak gordetzea.

Behar bezala identifikatuta izatea hotz-tankeak Q letra etiketaren bitartez.

### **Operadore guztien betebeharrak**

---

Hilabeteko, gutxienez bi laginketa baliadun egitea esnea ematen dion ekoizle bakoitzari.

Beren instalazioetan deskargatzen den zisterna ororen laginak gordetzea eta dagozkien derrigorrezko analisiak egitea esnea deskargatu baino lehen.

Q letra etiketaren bidez identifikatuta edukitzea zisterna eta edukiontzia.

Eusko Jaurlaritzaren Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzari jakinaraztea Q letra datu-basearekin erlazionatutako analisei buruzko intzidentzia oro, baita erregistratutako eragile eta edukiontzietan dauden aldaketa guztiak ere.

Q letra aplikazioari komunikatzea beren esne-zentroetan egiten diren esne-deskargetan hautematen diren inhibitzaileekiko emaitza positiboak.

### **Behi-esnearen operadoreen betebeharrak**

---

Operadore guztientzat zehaztutako betebeharez gain, behi-esnearen operadoreek honako hauek ere bete behar dituzte:

Ekoizleari hartu-agiri bat ematea esnea jasotzen duten bakoitzean, gutxienez, honako informazio hau jasoko duena: ekoizlea, ustiapena, jasotze-data eta -ordua, jasotako esne-kopurua, operadorea, esne-zisternaren kodea eta lagina hartu den edo ez.

Hotz-tanke, zisterna edo silo bakoitzari dagozkion mugimenduen erregistroa egitea, eskuz edo era informatizatuan.

Q letra datu-baseari jakinaraztea mugimendu horiek, gehienez ere mugimendua egin eta 48 ordura.

Eusko Jaurlaritzaren Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzari jakinaraztea Q letra datu-baseari mugimenduak komunikatzearekin erlazionatutako edozein intzidentzia.

### **Laborategien betebeharrak**

Nahitaezko analisiak egitea, legeriak ezarritakoaren arabera.

Analisi horien emaitzak Q letra datu-baseari jakinaraztea.

### **Q letrari buruzko informazio gehiago**

#### **Q letrari buruzko informazioa**

- Eusko Jaurlaritza

#### **Q letraren webgunea**

- MAGRAMA

**ELIKAGAIEN TRAZABILITATEARI buruzko kontzeptu orokorrak**

#### **ELIKA**

. Granja Modelo, z/g . 01192 . Arkaute (Araba) . Telefonoa: 945 122 170 . Faxe: 945 122 171 .

**berri@elika.eus**

**Multilingual WordPress**

with WPML